



❖ ETXERAT  
**Kontzentrazioa gaur, herriko kultur eragileen babesarekin**

Hileko azken ostiral guztietan bezala, kontzentrazioa izango da gaur Gudarien plazan 20:00etan, *Estatus Politikoa Orain, Euskal Presoak Euskal Herrira* lempean. Etxerategi adierazi duenez hil honetan herriko kultur taldeen babes jaso du kontzentrazioak eta pertsonalki beren babes eman dute honakoek:

Niko Lizeaga (aktorea); Joxan Goikoetxea (musikaria); Pepi Arrozpide (San Joan Konpartsa); Aritz Usandizaga (musikaria); Nati Merino (Gure Etxolako lehendakaria); Nagore Arraras (Ttaria); Joxe Segura (Kriskitiña); Amaia Sasiain (Kantuz abesbatza); Amaia eta Aitor Parrondo (dantzariak); Imanol Kamio (Ozenki abesbatza) Andoni Tolosa (musikaria); Chus Con Gil (Askagintza); Mikel Perurarena (idazlea); Jon Oñate (Morkaiko); Ramon Etxeberria (Dultzaineroa); Ohiana Romero (AEK); Jokin Zubeldia (Kalez Kale Kantuz); Kontxi Zubeldia (Tolare lehendakaria); Maialen Lujanbio (bertsolaria); Arkaitz (Oreka TX); Juan Mari Beltran (musikaria); Jexux Mari Irazu (bertsolaria); Aitor Mendiluze (bertsolaria). ||

❖ HIRIGINTZA ETA INGURUEMEN BATZORDEA GAUR

## Aitor Zinemetan etxeak egiten datorren urtean hasi litezke eta obrek urte bete inguru iraungo dute

Gaurko batzordean Aitor Zinemetan etxebizitzak egiteko tramite batetaz, PERIaz, hitz egingo dute. Energiaren Euskal Erakundearekin elkarlana egiteko proposamenaz ere ariko dira.

HIRIGINTZA eta Ingurumen Batzordea izango da gaur Udaletxean. Bertan hitz egingo dute Aitor Zinemetan etxebizitzak egiteko hainbat trami-teetaz. Izan ere Diputazioak eskatuta Udalak finkatu behar ditu etxebizitza horiek egiteko hainbat irizpide. Irizpide horiekin Udalak onartu beharko du Aitor Zinemak etxebizitza

bihurtzeko plana, PERIa. Diputazioak onespina ematen badu proiektuaren tramiteekin hasi beharko litzateke gero.

Iñaki Arratibel, Hirigintza Zinegotziak adierazitakoaren arabera etxeak egiten datorren urtean hasiko lirateke eta urte-bete inguru iraungo lukete obrek. Aitor Zinemetan 40 etxebizitza egiteko asmoa dago.

**Energiaren Euskal Erakundearekin Elkarlana**  
Batzarrean hitz egingo dute baita ere Energiaren Euskal Erakundearekin (EEE) elkarlana egiteko proposamenaz. Arratibelek dio hitzarmen hau baliagarria izango dela, adibidez, herritarrek eguzki plakak jartzeko eskariak egiten dituzten garaian, tramita-

zioa erraztu eta informazio gehiago izateko. Arratibelek adierazi du baita ere badagoe-la asmoa Udaletxean eguzki plakak jartzeko.

Horrez gain Atzuleta-Zahar baserria berritzeko eskaria eta Añarbeko ur erresidualak bon-beatzeko estadioa, Zikuñaga eta Epelen duena, berritzeko eskaria ere aztertuko dira. ||

❖ URUMEAKO AUTOBIDEA

## Urnietako bariantearen planoak eta obra egiteko hartuko diren terrenoak ikusgai Udaletxean

Gipuzkoako Aldizkaria Ofizialean argitaratutakoaren arabera Hernanin 39.577 m<sup>2</sup> desjabetuko dira. Aurreikusi dute obrak urte bukaeran ateratzea konkurtsora.


URUMEAKO autobideko obrak aurrera dihoaz eta Urnietako bariantea eraikitze-ko proiektua dagoeneko idat-zia dago. Proiektua eta desja-betu beharreko lurren ze-rranda ikusgai dago Uda-letxeko Hirigintza sailean, azaroaren 19ra arte. Urnietako saihesbidea egiteko Hernanin 39.577,7 m<sup>2</sup> lur desjabetuko dira. Lur horiek partikularrenak dira gehienak eta Udaletxearen lurak ere badaude tartean.

Diputaziotik jakitera eman dutenez obrak urte honen bukaeran eta 38 miloi euroko aurrekontuarekin aterako dituzte konkurtsora. Asmoa dute 2007ko abuztu-rako obra hau bukatuta ego-tea.

**Martutene-Hernaniko zatian lanean**  
Urumeako autobidea An-doaindik Donostiara dihoaz eta Hernaniko bariantea da egin

duten bakarra eta etorkizune-an zabaldu egingo dute. Mo-mentu honetan Hernani eta Martutene arteko tramuan ari dira obretan.

Urumeako autobidea egin-go dute Astigarraga, Ergobia, Martutene eta Loiola artean sortzen diren ataskoak arin-tzeko. ||



Hernani eta Urnieta arteko autobideko tramaoa.

❖ ZINEA

### Biterin bi pelikula asteburu honetan

Asteburu honetan *La Madre del Novio* pelikula jarriko dute helduentzat Biterin, gaur 22:30etan, bihar 19:30etan eta 22:30etan eta igandean 19:30etan. Haurrentzat *El Sueño de una noche de San Juan* filma izango da, larun-bata eta igandean, arratsal-deko 17:00etan. ||

**Ezkerro**  
Ezkerro frutak  
- Antziola 5 -  
Telefonoz eskatzeko:  
943 33 32 75  
Bertako fruta eta barazkiak. Fruitu exotikoak; jateko loreak, alfalfa, soja germinatua, frambuesa, arandanoak...

**AITAN-ETXE**  
**TABERNA**  
ASTEBURUETAN  
AFARIAK  
Larramendi 15  
- Tel.: 943 55 00 46 -

**URGASKA, S.L.**  
Gas instalakuntza  
Material salmenta  
Aristizabal 9 Behea  
K21  
943 33 37 40  
\* Asistentzia teknikoa, gas eta berogintzan.  
\* Gas propano, butano eta naturala: mantenua  
\* Iturgintza



☎ TELEFONOAK 1 Taxiak: 943 550093 1 Udaltzaingoa: 943 333288 1 DYA: 943 464622  
1 Autobusak: 943 556662 1 Anbulatorioa: 943 006666 1 Jokalari anonimoak: 943 331103  
1 Alkoholiko anonimoak: 943 331103 1 FARMAZIAK 1 Egunez: Etxebeste Elcano 2 - 943 552087  
1 Gaeuz: Chucla Kardaberaz 48 - 943 551793

**EGURALDIA**  
**GAUR** Eguraldia nahasia izango dugu. Hego haizeak goizetik gogor joko du eta arratsaldean indarrak galduzen joango da. Zerua lainotuta ikusiko dugu eta euria egin lezake. Temperatura maximoak grado pare bat jaitsiko da.  
**BIHAR** Larunbateko eguraldiak itxura hobea izango du eta zerua urdin ikusiko dugu. Hego haizeak eguerditik aurrera, berriro ere indarra hartuko du. Temperaturak ez du aldaketarik izango. (euskalet)

## ❖ TRAFIKOA - NORABIDE ALDAKETAK

# Bildu Hernanik eskatu du trafikoari buruzko "Plan Orokor bat" egitea

BHren iritziz trafiko norabide aldaketen eztabaidan parte hartzeko lehenbizi "baliabideak eta moduak" zehaztu behar ditu Udalak.

BILDU Hernanik ohar bat bidali du Kronikara, trafiko norabide aldaketen eztabaidari buruz eta "jasaten ditugun trafiko arazoak direla-eta" bere iritzia emateko.

BHK dio, trafiko norabide aldaketen eztabaidan parte hartzeko asmoa dutela "talde politiko bezala edo herritar bezala", baina plataforma honen azaldu duenez "ez dakigu nola bideratu parte hartze hori, prentsan adierazten zen bidea, interneteko web orri bat alegia, ez baitzaigu nahiko iruditzen tamaina honetako eztabaida bat aurrera ateratzeko", BHK ondo deritzo herritarrei parte hartzeko eskaria egitea "baina lehenbizi baliabideak eta moduak zehaztea ez lego-ke gaizki".

**Epe luzerako aurreikuspena**  
Bildu Hernanik adierazi du Udalak erabakiak hartzen dituela trafiko Plan Orokor bat izan gabe eta herri plataformaren ustez orain arte hartu diren trafiko erabakiak "puntuak" dira eta ez dute "epe luzerako aurreikuspenekin jokatu". BHren hitzetan "ez du ematen Karmelo Labaka, Latxunbe, Zinkoenea eta abarretan dauden arazoak konpontzeko balioko dutenik; alderantziz, arazoak gehitzen dira eta etorkizuneko konponbide zailagoa izango dute".



**BHK epe luzerako aurreikuspena nahi du trafiko erabakietan.**

Talde politiko honek oharean jakinarazi du eztabaida honetan egingo duen ekarpena ez dela "abagunearen arabera" izango: "Guk ez dugu esango kale baten norabidea aldatzeko edo Zinkoeneako errotonda, osoa izan behar duen edo orain planteatua dagoen moduan partziala izan behar duen -gure ustez orain dagoen bezala alferrikako kalejirak besterik ez baititu sortzen-", BHren ustez "azterketa partzialek "pisu subjektibo handia" dute eta eztabaida ez da "eraikitzailea" izango. ||

## Trafikoaren Plan Orokorra

BHren ekarpena "Trafikoaren Plan Orokor bat egiteko eskaria" izango dela diote talde honetatik. Horretarako hainbat irizpide edo oinarri hartu behar direla kontuan uste dute gainera:

- 1) Peatonalizatzeko destinoa duten kaleak (Urbietako kalea, adib.).
- 2) Zerbitzu eta erabiltzaileentzako guneak.
- 3) Bateragarri egin zirkulazio arineko irteera arteriak eta abiadura moderatukoak (ez orain planteatutako irteerak, trafiko moteldu eta alferrikako kutsadura sortzen dutenak).
- 4) Zentroaren eta auzoen arteko irteera eta sarrera komunikazioak aztertu.
- 5) Onartu beharreko AASetan planteatzen diren bide-sareek izango dituzten helburuak argitzea.

## ◆ ATLETISMOA

# Joxe Mari Murua eta Ixiar Urdangarinek urrea Goierri Garaiak Krossean

10 kilometroko lasterketa hau Urretxu eta Zumarragan izan zen. Murua datorren igandean Lasarteko krossean izango da.

JOXE Mari Murua eta Ixiar Urdangarinek aurreneko postuak egin zituzten pasa den astean Urretxu eta Zumarraga artean korritu zen Goierri Garaiak Krossean.

Joxe Mari Muruak 60 urteko gorako beteranoren mailan korritu zuen eta 43 minutuko

denbora egin zuen.

Ixiar Urdangarinek emakumezkoen kategorian korritu zuen, seniorretan, eta 38 minutu eta 34 segunduko denbora egin zuen.

**Murua Lasarteko krossean**  
Joxe Mari Muruak Lasarteko

Krossean egingo du lasterka datorren igandean. 10 kilometroko karrera izango da, Lasarte-Oria-Zubieta inguruetan.

Ixiar Urdangarinek 2 edo 3 asteko deskantsua hartuko du. Entrenatu bai baina lasterketetan parte hartu gabe. ||

## ❖ DOBERA EUSKARA ELKARTEA

# 'Gure artean euskaraz'-en izena emateko azken eguna

Arduradunek adierazi dute euskaldunak behar dituztela egitasmoan parte hartzeko

Gure artean euskaraz egitasmoan parte hartu nahi duenak gaur du azken eguna izena emateko.

Programa hau Doberak, herriko ikastetxeek, euskaltegiek eta Udaleko Euskara Zerbitzuak jarri dute martxan, hirugarren aldiz jarraian. Helburua da, euskaraz hitz egiteko talde txikiak osatzea, hizkuntza honetan hitz egiteko gaitasuna ez duten edo gaitasun hori galdu duten ikastetxeetako gurasoekin edo interesa duen edonorekin. Talde bakoitzean, euskaraz hitz egiteko errazta-

sun haundiagoa duen norbait egotea nahi dute arduradunek eta horregatik dei egin diete herriko euskaldunei bertan parte hartzeko.

### Talde txikiak eta ordutegi malgua

Taldeak hiruzpalau pertsonetakoak izango dira eta ordutegi beraiek erabakiko dute. Arduradunek pentsatzen dute azaro erdirako taldeak osatuta egongo direla. Izena emateko Doberaren bulegotik pasa daiteke goizeko 09:00-etatik 13:30ak arte eta arratsaldeko 16:00tik 19:30etara. ||

## ❖ MENDIZALE ASTEA

# 'Mendi kiroletako entrenamendua' ikastarorako plazak libre daude

Mendiriz Mendi elkarteak jakinarazi du lekua dagoela oraindik azaroaren 2 eta 3rako antolatu duen Mendi kiroletako entrenamendua ikastaroan parte hartzeko.

Ikastaroaren lehenengo egunean teoria landuko dute gehienbat: entrenamendua-aren oinarriko printzipioak; erresistentzia, indarra eta malgutasuna nola entrenatu; mendiko ekintza ezberdinek eskatzen duten prestaketa (ohiko mendi bueltak, iraupen luzeko ibilaldiak, mendiko lasterketak, mendiko eskia, mendiko eski lasterketak, kirol eskalada, alpinismoa...); aklimatazioari bu-

zurko kontzeptuak eta elikadurari buruzko kontzeptuak. Ikastaroan parte hartzen dutenek aukera izango dute galderak egiteko eta beren zalantzak argitzeko. Bigarren egunean indarra eta malgutasuna lantzeko saio praktikoak izango da.

### Parte hartzeko

Ikastaroan parte hartu nahi dutenek gaur dute aukera izena emateko, Mendiriz Mendi elkartearen (Iturregi plaza), 20:00etatik 21:00etara bitartean. Ikastaroak 19:30etatik 21:30etara izango dira, datorren ostegun eta ostira-lean. ||

## ❖ GAZTE TXOKOA

### Sex-Drog informazio puntua gaur

Gazte Txokoa Sex-Drog informazio puntua izango da gaur arratsalde guztian. Bertan saiatuko dira gazteek sexuari eta drogei buruz dituzten zalantzak argitzen. ||

## ❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

**Etxeko garbiketarako egiteko** emakume bat behar da. Astean 2 egunetarako eta egunean 2 ordu. Deitu 943 33 10 69

**Oheburua daukagu salgai.** Burnizkoa (forja) eta beltza. 1,35eko ohearentzat. Deitu: 943 33 32 47

**Mekaniko ofiziala behar dugu,** kotxe tailer batean lan egiteko. Deitu astelehenetik ostiralera: 943 46 47 19

**Itxaro Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42).

**Arotz profesionalak** lan txikiak egingo lituzke. Deitu: 656 78 64 15